

Donostia, 2024ko urtarrilaren 19a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

PSIKOLOGO KOMUNITARIOEN GAINEKO EPAIA BETETZEARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Arantza Gonzalez Garciak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu behar du, hilaren 15ean Zerbitzu Okorren Batzordean egindako INTERPELAZIOAren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Hilaren 15ean ere batzordean adierazi genuenez, Auzitegi Gorenak atzera bota zuen Donostiako Udalak Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak (EAEAN) arreta psikologiko komunitarioko zerbitzuko langile bati buruz emandako epaiaren aurka jarritako errekurtsioa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiak langile batzuk legez kanpo laga zirela aitortu eta salaketa jarri zuen pertsona langile publikoen baldintza eta eskubide berberekin kontratatzeko agindu zion Udalari. Auzitegi Gorenak errekurtsioa atzera botatzeak irmo bihurtzen du EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia.

Salaketa gehiago ere jarri dituzte langileek Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, eta aurrenekoaren epai berbera izan dute. Hala ere, udal gobernuak Auzitegi Gorenean errekurritzea erabaki du, lehenengoarekin erabili zituen argudio berberak erabilia. Horrek esan nahi du Auzitegi Gorenak ildo berean emango duela epaia, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia aintzakotzat hartu eta azpikontrataturako langileak langile publikoen baldintza eta eskubide berberekin hartuaraztea Udalari.

Batzordean, Kerman Orbegozo zinegotzi eskurodeak erantzun zigun lehenengo epai irmoa betetzeko egin behar diren kudeaketak egiten ari dela udal gobernua, eta oraindik baduela denbora hori egiteko.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian aurkeztutako gainerako salaketei dagokienez, epaiak jaso ahala beteko direla adierazi zuen, baina, inplizituki onartu zuen, Auzitegi Gorenera jotzen jarraituko duela gobernuak, beste birekin egin duen bezala.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiak Auzitegi Gorenean errekurritzeak esan nahi du udal gobernuak luzatzea erabaki duela –luzatzeko batere beharrik izan gabe– langileen legez kanpoko lagapena, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak eta Auzitegi Gorenak aitortu dutena, luzatze horrek langile horientzat dakartzan ondorioekin, pertsona aldetik eta diru aldetik. Eta Udalari ere ez dio mesederik egiten horrek.

Hori dela eta, haxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak udal gobernuari eskatzen dio betetzeko arreta psikologiko komunitarioko zerbitzuko langileek salatutako langileak legez kanpoko lagatzea aitortzen duten epai guztiak, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiarenak, Auzitegi Gorenean errekurritu gabe epai horiek.

Arantza Gonzalez Garcia,

Elkarrekin Donostia udal talde mistoko zinegotzia